

GARDENTASUNAREN EGOERA

GASTEIZKO UDALAREN PUBLIZITATE
AKTIBOAREN ETA INFORMAZIO
PUBLIKORAKO SARBIDEAREN ARLOKO
BETEBEHARRAK BETETZEARI BURUZKO
TXOSTENA - 2024KO EKITALDIA



AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
Publizitate aktiboa.....	4
Informazio publikoa eskuratzea.....	14
Gardentasun Atarira egindako bisitak.....	16
Ondorioak.....	20

Sarrera

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikulua betez, **txosten** hau aurkezten da, Vitoria-Gasteizko Udalak **2024.urtean** publizitate aktiboaren eta informazio publikoa eskuragarri jartzearen inguruan dituen betebeharren betetze-mailari buruzkoa. **Txosten** honek, era berean, ekitaldian zehar **garatutako** udal-jarduerei buruzko memoria gisa balio du, gobernu irekiaren antolaketan eta garapenean **gardentasunaren kultura** sustatzeko helburuarekin.

1.1 Lege- eta arau-esparrua

Oinarrizko bi arautan daude finkatuta dokumentu honetan hizpide ditugun **betebeharrak**, beste legegintza-ingurune batzuetan ageri diren —eta era berean Udalari aplikatzekoak diren— gardentasunaren arloko beste batzuk gorabehera:

- **19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa** (2013ko abenduaren 10eko BOE, 295. zk.).
- **2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa** (2016ko apirilaren 14ko EHAA, 70. zk.).

Sailen, organismo autonomoen eta udal enpresen arteko koordinazio-lana egin zezan, Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzuko Gardentasunaren eta Edukien Atalaren gain utzi zituen zeregin horiek Gasteizko Udalak, efizientziaren eta gastu publikoaren arloko aurrezpenaren inguruko irizpideak oinarritzat hartuta. Horrenbestez, atal horrek egin du txosten hau.

1.2 Txosten honi buruz

Bi legeek publizitate aktiboa nahitaezkoa dela dioten alderdi nagusiak aurkezten ditugu txosten honetan, atalez atal, eta Udalak betebeharrak hori zenbateraino betetzen duen adierazten. Gainera, beste atal batean, informazio publikoa eskuratzeko eskabideen berri ematen da (publizitate pasiboa), eta webgunera eta aurrekontu grafikoaren plataformara egindako bisiten datu estatistikoak.

Publizitate aktiboa

2.1 Printzipio orokorrak

19/2013 Legearen 5. artikuluan eta 2/2016 Legearen 50. artikuluan daude jasota legez horretara behartuta dauden subjektuen publizitate aktiboa gidatu behar duten “printzipio orokorrak”. Gasteizko Udalak betetzen ditu printzipio horiek, ondoren adierazten dugun moduan, bete ere:

- **Irisgarritasuna:** Udalaren webgunea —eta, beraz, bertako eduki guztiak—bat dator **sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzko apirilaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuarekin**, zeinak 2016/2102 (EB) Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen baitu; orobat, nazioarteko zenbait estandar teknologiko betetzen ditu, eta baditu, gainera, informazioaren irisgarritasuna bermatzeko software-laguntza teknikoak.
- **Elebitasuna:** webgunean herritarren eskura jartzen den informazioa **formatu elebidunean** dago gehienbat, erakundeak nahitaez bete beharreko indizetik gora —% 95 ingurukoa da portzentajea html orrien kasuan—.
- **Hizkera inklusiboaren erabilera: hizkuntzaren erabilera ez-sexistari dagokionez ezarritako betekizunak** betetzen dituzte edukiek, baita **Udalaren zeharkako hainbat planetan finkatutako bestelako irizpideak** ere ([Bizikidetzaren eta Aniztasun Planeko irizpideak](#) aplikatzen dira edukietan).
- **Eskuratu orduko eguneratzen da informazioa**, zeina sailek berek ateratzen baitute zuzenean kudeaketa-aplikazioetatik, **zorroztasunez**. Aplikazio horiek **automatikoago** bihurtzeko lan egiten da, eta,aldi berean, **informazioa argiagoa** izan dadin, eta **herritarrek** webguneko edukirik konplexuenak **errazago ulertzeko modua izan dezaten**.
- **Berrerrabiltzea eta elkarreragingarritasuna:** Txosten hau idatzi den unerako, 808 artxibo zeuden argitaratuta Datu Irekien Atarian, 192 datu-multzotan bilduta.

Txosten honetan, Udalak publizitate aktiboaren arloan dituen betebeharrak nola betetzen diren adierazi ahala, orobat adieraziko dugu printzipio orokor horiek zein puntutan betetzen diren eta zeinetan ez.

2.2 Gardentasun Atariaren egitura

Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atariaren egungo egiturak, argiagoa izatearren, sei apartatu nagusietarako sarbidea jasotzen du, bai eta apartatu espezifiko baterako ere, non Next Generation EU funtsek finantzatutako proiektuei buruzko informazio guztia argitaratzen baita:

- **Antolakuntza, planifikazioa eta kontu-ematea.**
- **Ekonomia, aurrekontuak eta zergak.**

- **Kontratazioak, dirulaguntzak, hitzarmenak, zuzenketak.**
- **Open Data-Datu irekiak:** Datu Irekien Atarirako zuzeneko sarbidea.
- **Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea:** eskubide hori baliatzeko moduari buruzko informazioa, eta jarraipenaren estatistikak.
- **Gardentasuna gaika:** udal kudeaketaren hainbat arlori, izapideei eta zerbitzuei buruzko informazio eskuratzeko sarbidea.
- **Next Generation EU.**

Nabarmentzekoak izeneko atalean, **Nora doaz nire zergak?** plataformara sartzeko bide ematen da, non Udalaren aurrekontuak formatu grafikoan agertzen baitira.

Aurreko urteetan bezala, mantendu egin da **“Azken eguneratzeak”** atala, bertan ematen baita atariaren eguneratze garrantzitsuenei buruzko informazioa. 2024an, egindako eguneratze garrantzitsuenei buruzko 54 abisu argitaratu ziren albiste-dukiontzari horretan, aurreko urtean baino % 20 gehiago, argitaratutako berritasunak errazago aurkitzeko.

Bestetik, **organismo autonomoen eta udal-enpresen** guneetarako zuzeneko estekak ere erakusten dira, eta halaber **gardentasunaren egoerari buruzko txostenak jasotzen dituen** espaziorako eta **gizarte-erantzukizun korporatiboari** buruzko espaziorako estekak ere.

2.3 Betekizunen betetze-mailari buruzko analisia

Publizitate aktiboaren baldintzak bete diren zehazteko, identifikatutako 60 item lantzen dira, 6 ataletan multzokatuta:

- 2.3.1 Erakundeari, antolakuntzari eta planifikazioari buruzko informazioa (15)
- 2.3.2 Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa (7)
- 2.3.3 Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa (20)
- 2.3.4 Langileei buruzko informazioa (5)
- 2.3.5 Politika publiko lokalei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa (5)
- 2.3.6 Beste gai batzuk (8)

2.3.1 Erakundeari, antolakuntzari eta planifikazioari buruzko informazioa

Kapitulu honetako betebeharrei erantzuteko, Gasteizko Udalaren gardentasun-atariak baditu 6 atal: Udalaren antolaketa politikoa eta antolaketa administratiboa, udal-araudia, Idazkaritza eta Kontu-hartzailetza Nagusiko organoen barne-txostenak, ebazpen judizialak eta 2023-2027 Gobernu Planaren informazioa, kontuak emateko ataria barne.

19/2013 Legearen 6. artikulua eta 2/2016 Legearen 52. artikulua arabera

Legeak aginduta eman beharreko informazioari buruz:

1. [Argitara ematen da toki-erakundearen organo beharrezko eta osagarriak zeintzuk diren, bakoitzaren titularrak \(osaera\) eta eginkizunak adieraziz.](#)
2. [Argitara ematen da zer arau zaizkien aplikagarri.](#)
3. [Argitara ematen dira organo bakoitzaren gai-zerrendak eta hartzen dituzten erabakiak](#)
4. [Argitara ematen da Erakundearen eta haren gobernu-taldearen ardura politiko gorena duten pertsonen buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.](#)

5. [Argitara ematen da alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea](#)
6. Argitara ematen da [antolaketa-egitura eguneratua](#): organoen arduradunak dituen organigrama, zuzendaritzako edo erantzukizuneko postuak berariaz aipatuta. (Txosten hau itxi den egunean, datuak eguneratuta daude, baina ez da ematen lanpostu horiek betetzeko behar den profilari buruzko informaziorik, eta, horrela, 2/2016 Legearen legezko betekizunaren zati bat baino ez da betetzen. Legeak lanpostu horiek betetzeko behar den profila eta lanpostu horiek betetzen dituzten pertsonen ibilbide profesionala adierazi beharra ezartzen du).
7. Argitara ematen dira [toki-ordezkarien ondasun eta jarduerari buruzko urteroko aitorpenak](#)
8. Argitara ematen da [behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda](#)
9. [Argitara ematen dira gobernu plana, agintaldiko plana eta jarduera-plana. Aldian-aldian, plan horien betetze maila ere bai.](#)
10. Legeak ezartzen du urteko eta urte anitzeko plan eta programak (xede zehatzak, eta horiek gauzatzeko aurreikusitako jarduerak, baliabideak eta epea) eman behar direla argitara. Helburu horien betetze-maila ebaluatzea eta aldi behin argitaratzea, baina argitaratzen dena udal-gobernuak [Kontuak Emateko Atariaren](#) bidez hartutako konpromisoen betetze-mailarekin lotuta.
11. Argitara eman da [udal talde politikoei](#) buruzko informazioa.
12. Argitara eman dira [aholku-organismoak eta gizarte partaidetzakoak](#), haien jarduera eta erabakiak barne.
13. Argitara ematen dira, [Gardentasun Atarian](#), udal-enpresei, organismo autonomoei, haien antolaketa-egiturari eta [kanpoko erakundeetako ordezkariari](#) buruzko informaziorako estekak.
14. Argitara eman dira haiei buruzko [entitatearen gaineko informazio orokorra, helbide elektronikoak, herritar guztien eskura dauden telefono-zenbakiak](#), eta, halaber, [haien hautetsiek eta zuzendaritza-kideek komunikaziorako eskaintzen dituzten moduak](#)
15. Halaber, ezagutzera ematen da [zein kanaletatik esakintzen diren herritarren arretarako zerbitzuak](#) eta zein kanaletatik gauzatu daitekeen [herritarren parte hartzea](#)

Informazioa elebiduna da, gaztelania hutsez dauden zenbait fitxategi erantsi salbu, eta **genero-berdintasunaren markoa errespetatzen da**. Informazio eguneratua da, egiazkoa, ez oso konplexua, eta irisgarritasun unibertsalaren estandarrak betetzen ditu —bai html edukiak, bai pdf artxiboek—.

2.3.2 Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa

Bi artikulua hauetan aipatzen diren informazio-itelak Udalaren webguneko **hainbat lekutan ageri dira**, eta Gardentasun Atariko hainbat estekak eramaten dute horietara. Hala, Udalaren araudiari buruzko orrialdean aurkitzen ditugu, herritarren parte hartzeari buruzkoetan, aurrekontuei buruzkoetan...

19/2013 Legearen 7. artikulua eta 2/2016 Legearen 53. artikulua arabera

Legeak aginduta eman beharreko informazioa:

1. **Ez dira argitara ematen** udal organoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
2. Argitara ematen dira [toki erakundeen ordenantza, erregelamendu eta aurrekontuen proiektuak, hasierko onespena eman eta berehala, bederen](#). Ez dira argitara ematen arau-testuak egiteko dosierretako memoriak eta txostenak; bereziki **eragin normatiboaren analisiari buruzko memoria**, zeina uztailaren 3ko 1083/2009 Errege Dekretuak arautzen baitu.
3. Argitara eman dira, [izapidetzen ari den araudiaren atalean](#) eta [iragarki taulan](#), indarreko legeria sektorialaren arabera izapidetzen ari diren bitartean jendaurrean jarri behar diren dokumentuak eskuragarri daudela adierazten duten iragarkiak.
4. Ez dira argitara ematen aholku-organoen txosten edo irizpenak.
5. Argitara ematen dira [herritarren parte-hartze prozesuen ondorioak](#)
6. [Hasitako, abian diren eta amaituta dauden parte-hartze prozesuei buruzko informazioa](#) ematen da. Eta bereziki, prozesu horiekin lotutako txostenak.
7. 2023ko ekainetik, **ebazpen judizialak** Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren **Dokumentazio Judizialeko Zentroak** (CENDOJ) ematen duen aplikazioaren bidez eskaintzen dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikulua arabera (arau-plangintzari buruzko artikulua).

8. Ez da argitaratu Urteko Araugintza Plana, zeinak hurrengo urtean onesteko igorriko diren erregelamendu-ekimenak jasotzen baititu.

2.3.3 Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa

Ekonomiari, kontratazioei, aurrekontuei eta estatistikari buruzko informazioaren gaineko itemak **modu proaktiboan eskaintzen dira, bai Gardentasun Atariaren bidez, bai Datu Irekien Atariaren bidez —kontratu-zerrenden edo aurrekontuen kasuan—**.

Prozedura-kontuei zor zaizkienak izan ezik —ezin dira aurrekontu-adierazleak kalkulatu aurrekontua erabat itxi arte—, gainerako guztiak eguneratuta daude.

19/2013 Legearen 8. artikulua eta 2/2016 Legearen 55. eta 57. artikuluen arabera

Legeak aginduta eman beharreko informazioa:

1. [Kontratu guztiak](#) ematen dira argitara, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatzaileren kopurua, esleipendunaren nortasuna, eta kontratuaren aldaketak. Ikus [kontratatzaileren profila](#).
2. Hiru hilean behin argitaratzen da [kontratu txikiei](#) buruzko informazioa.
3. Orobat argitaratzen dira [estatistika-datuak](#) sektore publikoko kontratuena arloko legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez adjudikatutako kontratuek aurrekontu-bolumenean hartzen duten ehunekoari buruz..https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&uid=u512f0851_173e0f2a3dc__7f28
4. Argitara ematen dira kontratisten ez-betetzeengatik ezarritako [penalizazioak](#).

5. Argitara ematen da [sinatutako hitzarmenen](#) zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak egiteko betebeharrak nor diren, eta, halakorik izan bada, zer obligazio ekonomiko hitzartu diren.
6. Argitara ematen dira sinatutako [kudeaketa-gomendioak](#), honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta azpikontratazioak, berariaz aipatuz esleipendunak, esleipena egiteko jarraitutako prozedura eta esleipenaren zenbatekoa.
7. Argitara ematen dira emandako [dirulaguntzak](#) dirulaguntza eta laguntza publikoak, haien zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak adierazita. https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&uid=u512f0851_173e0f2a3dc__7f28
8. Argitara ematen dira [aurrekontuak](#), aurrekontu-partida nagusiak deskribatuz eta exekuzio-egoerari buruzko informazio eguneratu eta ulergarria emanez. Argitara ematen dira osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean aurrekontu grafikoaren plataforman, partida nagusiak deskribatuz eta horien exekuzio-maila ezagutzea eta ekitaldian zehar onetsitako aurrekontu-aldaketak jakitea ahalbidetzen duen informazio zehatza emanez.
9. Argitara ematen dira [kontu-hartzailearen txotenak](#), aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzkoa.
10. Argitara ematen dira [kontu-auditoretzako eta fiskalizazioko txostenak](#).
11. Argitara ematen dira titulu honen aplikazio-eremuko entitateetako goi-kargu eta arduradun nagusiek jasotzen dituzten urteko [ordainsariak](#).
12. Argitara ematen dira hautetsien eta zuzendarien [interesen erregistroak](#).
13. Argitara ematen dira tokiko ordezkarien [ondasun eta jardueren urteko aitortpenak](#), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera.
14. Ez da argitara ematen, salbuespenak salbuespen, Udalaren eskumenekoak diren zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezkoa den informazio estatistikoa.
15. Argitara ematen dira [hornitzaileei](#) ordaintzeko batez besteko epeari buruzko datuak.
16. [Hornitzaileen ordaintzaren](#) arloko berankortasunaren gaineko legeria betetzeko epeak.
17. Ez dira argitara ematen ondare-ondasun higiezin zerrenda —bere jabetzakoak izan nahiz haien gaineko eskubide errealeen bat eduki—, eta, kasua bada, zein entitatei laga zaizkion. **Udalaren ondasun-inbentarioa**, 2015eko datuekin ematen da argitara.
18. Argitara ematen da Gasteizko Udalaren [Urteko Kontratazio Plana](#). Bertan, aurreikusitako erregulazio harmonizatuko kontratuei buruzko informazioa jasotzen da.
19. Argitara ematen da [ondarearen salerosketei eta jabari publikoaren emakidei](#) buruzko gune bat, zeinean informazioa zabaltzen baita udal-ondarea osatzen duten ondasunen gaineko jabari publikoko eskuratzei, salmentei eta emakidei buruzko prozedurei buruz.
20. Aurrekontu grafikoaren atarian, urtero eguneratzen da [Zure ekarpena](#) atala, eta gutxi gorabehera erakusten du nola banatzen den zenbatespena egiten duen pertsonak zergen bidez ematen duen dirua.

Aurrekontu-informazioari buruzko atal honi dagokionez, nabarmendu behar da 2022tik OGP taldean parte hartzen ari garela, zeinaren helburua baita Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetarako **aurrekontu grafikoaren plataforma** bat bateratzea. Abiapuntu gisa, azterketa sakon bat egin zen erabiltzaileekin, beharrak identifikatzeko, eta txosten hau idazteko unean plataforma-proposamen bat lantzen ari da. Foro horretan hartzen diren erabakien zain, Gasteizko Udalak eutsi egiten dio CIVIOrekin duen kontratuari.

2.3.4 Langileei buruzko informazioa

Udal langileei dagokienez, Udalaren webguneko antolakuntzari, planifikazioari eta kontu-emateari buruzko atalean jarritako **esteken bitartez betetzen dira** publizitate aktiboaren arloko betebeharrak, eta beste zenbait espaziotakoan bitartez, hala nola www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak atalean, edo lehen orrian, Enplegua fitxatik Enplegurako prestakuntza orrira sartuta.

2/2016 Legearen 56. artikulua arabera

Legeak aginduta eman beharreko informazioa:

1. Publizitatea ematen zaie [enplegu publikoaren eskaintzei](#), zenbateraino bete diren, eta funtzionario eta lan-kontratupeko langileentzako hautaketa-prozesuak —deialdiak, eta izendapenera arteko edo kontratua sinatu arteko egintza guzti-guztiak barne—.
2. Argitara eman dira Udalak bere langileei emandako [prestakuntza](#) ikastaroen eta prestakuntza-programen orduak eta kostuei buruzko datuak.
3. Argitara ematen dira [sindikatu ordezkartzako organoak](#) osatzen dituzten kideei eta horretarako liberatuta dauden pertsonen kopuruari buruzko informazioa, berariaz aipatuz zer ordu-kreditu duten.
4. Argitara ematen dira [lanpostuen zerrenda](#) eta [ordainsariak](#), kategoriaka.
5. Argitara ematen da [udal plantillari](#) eta [absentismoari](#) buruzko informazioa.

Egiteke dauden **hobekuntzen zerrendan, hor da oraindik 2019an egindako proposamena, hau da, lanpostuen zerrenda ulertzeko aukera emango duen koadro sinoptiko bat argitaratzea**. Terminoen eta laburtzapenen glosario bat ematen da argitara, baina informazioa argiago eman liteke.

2.3.5 Politika publiko lokalei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa

Kasu honetan, legean finkatutako publizitate aktiboaren arloko betebeharrei erantzungo liekeen **informazioa** ez dago berariaz leku bakar batean bilduta, baizik eta Udalaren webgunean sakabanatuta.

2/2016 Legearen 54. artikulua arabera

Legeak aginduta eman beharreko informazioa:

1. Ez dago informazio argi, irisgarri, ulergarri eta errazik toki-erakundeak kasu bakoitzean ematen dituen ondasun eta prestazioei eta haien kostuari buruz, ez orokorrean, ez banaka.
2. Ez dago informazio eguneraturik zerbitzu-kartei edo pareko dokumentuei buruz, edo, hala balegokio, zerbitzuen kalitatearen ziurtatze edo egiaztatze prozesuei buruz.

3. Argitaratu ematen dira zerbitzuen ordutegiak [zerbitzuen ordutegiak](#) eta ordaindu beharreko [prezio publikoak edo udal-tasak](#) .
4. Argitaratu ematen dira, [gaien orrialdeetan](#) eta [egoitza elektronikoan](#) , [zerbitzu-zorro](#) honi buruzko informazioa: mantentze-lanak eta obrak; segurtasun publikoa eta babes zibila; hondakinen bilketa eta tratamendua; uraren kudeaketa; bide-garbiketa; jarduera ekonomikoak eta lizentziak; hirigintza eta ingurumena; kultura eta kirolak; gizarte-zerbitzuak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna.
5. Argitaratu ematen dira Gasteizko Udalean egiten diren [ezkontza zibilei](#) buruzko datu estatistikoak.

Funtsean, bete dira legean finkatutako betebeharrak horiek. Kasu guztietan, informazioa bi hizkuntza ofizialetan dago —kostu-azterketak osatzen dituzten artxibo erantsiak izan ezik—, bete dira irisgarritasun-betekizunak, eta genero-ikuspegia aintzat hartzen duen hizkeraren inguruko udal politika errespetatu da.

Aurreko urteetan bezala, **Udalaren kalitate-politikari buruzko informazio eguneraturik eta zerbitzuen katalogo zinezkorik ez izatea jotzen da gabezia nagusitzat.**

Katalogo horri dagokionez, eta administrazio publikoek beren eskumeneko prozeduren zerrenda webgunean argitaratzeko eta eguneratuta edukitzeko duten betebeharra kontuan hartuta (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikulua), eutsi egin zaio prozeduren katalogoari, helburu hirukoitz batekin: Estatuko Administrazio Publikoaren "Administrazio Informazioko Sistema (AIS)" izeneko aplikazio informatikoa elikatzea, egoitza elektronikoko izapideen katalogoa elikatzea eta jendaurreko arreta kudeatzeko barne-aplikazioa (EVA) <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/es/elikatzea>.

Horrenbestez, administrazio publikoaren sektoreko azken joera eta estandarretara egokitzeko asmoz, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa berriz diseinatzea planteatu da. Horren bidez, aipatutako aplikaziotik abiatuta eta Liferay plataforma informazioaren eta dokumentazioaren gordailu gisa erabiliz, informazioaren arkitektura, nabigazioa eta bilaketa, ikus-diseinua eta pantailako informazioaren antolamendua hobetuko da. Egoitza elektronikoa berria 2024ko bigarren hiruhilekoan ezartzea aurreikusita da.

2.3.6 Beste zenbait alderdi

"Beste zenbait alderdi" izeneko epigrafean (ikus I. eranskina), **Gardentasun Ataria** du Gasteizko Udalak, eta **herritarrentzat interes orokorrekoak diren informazioak argitaratzen ditu bertan**. Gainera, **herritarren arretarako eta parte hartzerako bideen berri ematen da**, eta webgunera sartzen diren pertsonak **edukietatik bertatik edo herritarren postontziaren bidez** —herritarrekiko elkarrizketa-tresna nagusia— **esku har dezakete**.

2/2016 Legearen 58. eta 61. artikuluen arabera

Bi artikuluko horiek aginduta eman beharreko informazioa:

1. Argitaratu eman da herritarrentzako interes orokorreko informazioa, hargatik eragotzi gabe kasuan kasuko araudi espezifikoak ezarritako informazio-betebeharrak, [gai-arloen eta gaien atalen](#) eta [egoitza elektronikoaren](#) bidezkoak.
2. Ezagutzera eman dira [herritarren arretarako](#) eta [parte hartzerako](#) zerbitzuak eskaintzeko dauden kanalak.
3. [Gardentasun-atari](#) bat mantentzen da, non herritarrei eta erakundeetara Legean ezarritako gardentasun-betebeharren ondoriozko informazio publiko guztia eskuratzeko aukera ematen baitzaie (nahitaezkoa da 20.000 biztanletik gorako toki-erakundeentzat).

4. [Herritarren postontzi](#) bat gaitu da, herritarrek proposamenak eta iradokizunak egin ditzaten, bai eskatutako informazioari buruz, bai eskura jarritako informazioari buruz.
5. [Badago Datu irekien atari bat](#), datuak irekitzea eta berrerabiltzea errazteko.
6. [Kanal anitzeko sistema](#) bat egituratu da, herritarrek aukeratutako kanalaren bidez herritarren informazioa eta parte-hartzea sustatzen duena.
7. [Udaleko osoko bilkurak](#) zuzenean ematen dira, eta osoko bilkuren eta batzordeen grabazioen gordailua mantentzen da.
8. Argitara ematen da [Gasteizko Udalaren kalitate instituzionalerako konpromiso, jokabide eta gobernu onerako kodea](#), eta udaleko osoko bilkurako kide bakoitzak kode horrekin konpromisoa hartu du 2013ko urriaren 18az geroztik.
9. Argitara ematen da [Gasteizko Udalaren kode etikoa](#). Kode horrek lagundu egiten du eta konponbideak identifikatzen ditu, Udalean balioetsutzat jotzen diren balioak babesteko, gatazkan gertatuz gero.
10. Bestalde, 2/2016 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren ildotik, Udalak webgune bat du —<http://elkarteak.info>— **Gasteizko elkarte-mugimenduko entitate pribatuek espazio bat izan dezaten gardentasunaren arloko beren argitalpenetarako**, horretara behartuta baitaude laguntza eta dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten entitateak.

2.4 Udalaren organismo autonomoak eta enpresak

Udalaren **organismo autonomoek** —[Ingurugiro Gaietarako Ikastegia](#), [Luis Aranburu Musika Eskola](#) eta [Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorioa](#)— **atal propioa dute Gardentasun Atarian**, eta bertara bideratzen duen esteka jarrita dago Udalaren webgunean bakoitzak duen orrian. Atal horretan ematen den informazioak, funtsean, webgune orokorreko eskema berari jarraitzen dio, baina hainbat informazio-item orokorrean integratuta daude, hala nola aurrekontuei edo goi-karguen ordainsariei buruzko informazioa.

Organismo autonomoen kasuan, **oro har informazioa eguneratuta ageri da, eta formatu elebidunetan** edo euskarazko bertsioarekin. Aurrekontuei buruzko informazioa eguneratuta dago. Aurrekontuarekin hertsiki lotuta ez dauden hainbat konturi dagokienez, organismo bakoitzaren jardueraren arabera daude eguneratuta datuak —esaterako, IGIren hornitzaileen zerrendak edo jasotako dirulaguntzak berrikusi beharko lirateke, baita kontserbatorioko edo musika-eskolako ordainsariak ere—.

Udal enpresen kasuan (TUVISA, AMVISA eta 21 Zabalgunea), eguneratze-maila organismo autonomoen kasuan adierazitakoaren antzekoa da.

Informazio publikoa eskuratzea

3.1 Prozedura eta estatistikak

19/2013 Legearen III. kapituluaren arautzen da **informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, gardentasunaren beste dimentsioa, “gardentasun pasiboa”** esan ohi zaiona, hartara “gardentasun aktibotik” bereizteko, hau da, txosten honetan aipatzen diren publikitate aktiboaren arloko betebeharrak arautzen duten horretatik.

19/2013 Legearen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzearen inguruan ezarritako erregulazioak —2/2016 Legearen III. kapituluaren (Informazio publikoa eskuratzeko arloko printzipioak eta erreklamazio-organoak) indartua— Gasteizko Udalean eskubide hori gauzatzeko **administrazio-prozedura bat abian jartzea** ekarri zuen berekin, zeina aplikazio baten bitartez modu elektronikoan baliatu baitaiteke, eta horrek aukera ematen digu legearen arabera bi hilean behin argitaratu beharrekoak diren estatistikak ateratzeko.

2024an, 55 eskaera jaso dira, eta 54 erantzun eman dira. Horietatik 5 ezetsi egin dira, lege-mailako informazio babestuari baitagozkio. Aurreko urteekin alderatuta, prozedura hobetzen ari da; izan ere, sailekin egiten ari den lanak arlo horretako dosierren izapidetzea arintzea ahalbidetu du.

Bestalde, beste prozedura batzuei —hala nola dosierra ikusteko prozedurari— erantzuten dietelako artxibatu behar izan diren eskaeren kopuruak behera egin duela ikusi dugu; aurtan, 8 eskaera izan dira, aurreko urtean ez bezala, 32 izan baitziren.

2024. urtea

- Jasotako eskabideak: 55
- Eskabideak, aurkezteko moduaren arabera: Presentziala (3)/Online (52)
- Eskatzaileen sexua: Emakumeak 17 / gizonak 30 / entitateak 8
- Erabilitako hizkuntza: gaztelania (48) / euskara (7)

Erantzunen zer-nolakoak	
Emandako erantzunak	60
Epe barruan emandako erantzunak	45
Erantzuteko baliatutako modua	Posta arrunta: 2 / Posta elektronikoa: 52
Onetsitako eskabideak	40
Partez onetsitako eskabideak	0
Ezetsitako eskabideak eta arrazoiak	2 (Lege-mailako arauak babestutako informazioa)
Artxibatuak	8
Gaikako laburpena	Mugikortasuna eta garraioa (2), Espazio publikoa (2), Ingurumena eta iraunkortasuna (1), Informazioa eta herritarrentzako arreta (15), Herritarren partaidetza (3), Kirolak (5), Aisialdia eta kultura (4), Gizarte zerbitzuak (2), Ogasuna (4), Ekonomia sustapena (11), Hirigintza eta Etxebizitza (9), Osasuna eta kontsumoa (1), Hezkuntza (4), Herritarren segurtasuna (2), Prestakuntza eta enplegua (7), Integrazioa eta Lankidetzak (2)
Erantzuteke (urtea bukatzean)	12

Gardentasun Atarira egindako bisitak

2024an zehar, beheranzko joerari eutsi zaio gardentasunaren home-ari eta gaikako orrialdeei dagokienez. Hori, kasu honetan, eduki zehatzetara ere eraman da, aurreko ekitaldiko bisiten igoeraren ondoren 2022ko mailetara itzuli baitira.

Hala ere, hori udal-webguneko edukien beherakada orokorraren isla da; izan ere, Gardentasun Atariaren hasierako orrialde-ikuspegiaren arteko erlazioa, www.vitoria-gasteiz.org webgunean ikusitako orrialde guztiekiko, % 0,04an mantentzen da, eta erabiltzaile guztien artean, berriz, erlazioa zertxobait jaisten da.

Open Data atariari dagokionez, banaketa-deskargen kopuruak ere behera egin du 2022ko mailetan, aurreko urteko hazkundearen ondoren.

Aldi berean, **Udalaren webguneari buruzko informazio estatistikoa** —urteko memoriatarako biltzen dena— herritarren eskura jartzeko asmoari eusten diogu, berriazko espazio bat sortuz horretarako, www.vitoria-eiz.org/gardentasuna helbidean. **Eduki hori sortzeke dago.**

Bestetik, aurreko urteetan adierazi den bezala, **egiturazko zailtasunak** daude **Udalaren Gardentasun Atarian estekatuta agertzen diren eduki jakin batzuen bisitak banakatzeko**, udal webguneko edukiak direlako eta ez atari horretarako berriaz prestatutako html-ak. Datu nagusietako batzuk eskaintzen dira hemen.

Orri nagusiak	Bista kopurua (ikusitako orrialdeak)	Erabiltzaileak guztira
Gardentasun Ataria (hasiera)	6.469,27,2	1.463 (-33,4%)
Udalaren webgunea	17.164.740,-2,3	890.957 (-% 10,7)
<i>Elkarren arteko erlazioa</i>	<i>Guztiaren % 0,04</i>	<i>Guztiaren % 0,16</i>

Gaikako orriak	Bista kopurua (ikusitako orrialdeak)	Erabiltzaileak guztira
Antolakuntza eta planifikazioa	2.210, (-% 34,4)	621, (-% 29,8)
Ekonomia eta aurrekontuak	913 (-% 19)	236 (-% 26,3)

Gaikako orriak	Bista kopurua (ikusitako orrialdeak)	Erabiltzaileak guztira
Kontratazioak eta ondarea	1.833 (-% 24,9)	490 (-% 16,5)
Gardentasuna gaika	575 (-% 41,33)	245 (-% 34,9)
Udal araudia	8.045 (-% 19,1)	1.384 (-% 58,8)

Eduki-orriak	Bista kopurua (ikusitako orrialdeak)	Erabiltzaileak guztira
Goi-karguak eta langile izendatuak	4.804 (-% 56,3.5)	1.829 (-% 30,6)
Goi-karguen ordainsariak	2.895 (-% 36,5)	1.123 (-% 28,9)
Udal-langileak	7.672 (+% 0,2)	2.585 (+% 1,8)
Jardueren eta ondasunen erregistroa	548 (-% 67,6)	179 (-% 58,8)
Gai-zerrenda eta akten kontsultak (organo espezifiko bakoitza kontsultatzeko sarrera ematen duen orria)	2.283 (-% 27,1)	525 (-% 21,2)
Osoko bilkuraren zuzeneko emanaldiak streamingen	6.922 (-% 20,3)	1.352 (-% 21,6)
Kontratuen, dirulaguntzen eta abarren estatistikak eta zerrendak	336 (-% 31,6)	69 (-% 29,6)
Agintaldirako plan estrategikoa – 2023-2027rako gobernu-programa	857 (-% 25,8)	284 (-% 11,2)
Open data (orri nagusia)	6.931 (-% 37,7)	2.009 (+% 45,7)

Datu Irekien Atariari dagokionez, urtean 2.645 banaketa deskargatu dira guztira (-% 19,1); hauek dira nabarmenenak:

Banaketak	Deskargak	Erabiltzaileak guztira
Hiri-lurzorua erabilerak, 2022	158 (% 18,8)	131(+ % 23,6)
Bizikleta-bideak SHPn	140 (+% 97,2)	113 (+% 85,2)
Sare hidrografikoa	76 (-% 23,2)	66 (-% 23,3)
Bideak	70 (+% 6,1)	60 (+% 1,7)
Udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko entitateen mugarren eta biztanleriaren mapa	68,26,9 (-% 26,9)	55 (-% 25,7)

Bisitak, 'noradoaznirezergak' webgunera

Modu espezifikoa, [Noradoaznirezergak](#) webgunean izandako bisitei buruzko datu nagusiak eskaintzen ditugu; aurrekontuen plataforma grafikoa da hori, CIVIO fundazioarekin egindako kontratuari esker abian jarria, non Udalaren aurrekontuei buruzko datu irekiak ustiatzen diren.

2023an GA4 analisi-tresna gisa eguneratu ondoren, oraingo tresnaren datu guztiak dituen lehen ekitaldia da hau. Kontuan izan behar da tresna batek eta besteak neurtzeko duten modua desberdina dela; beraz, 2023ko datuak gutxi gorabeherakoak dira.

Hala eta guztiz ere, datuek erakusten dute ikusitako orriek nabarmen egin dutela gora, eta erabiltzaileen kopuruak behera egin duela bi dimentsioetan (guztizkoak eta berriak). Horren ondorioz, bisiten errepikapen eta atxikipen handiagoa izan da (saio gehiago eta erabiltzaile bakoitzeko ikusitako orrialde gehiago).

	2020	2021	2022	2023*	2024
Ikusitako orrien kopurua	3.341 (-% 40,8)	4.440 (+% 32,8)	5.333(+ % 20,1)	4.361 (-% 18,2)	8.963 (+% 105,6)
Erabiltzaile-kopurua, guztira	1.005 (-% 8,3)	1.764 (+% +75,5)	2994(+ % 69,7)	2.723 (-% 9)	1.917 (-% 18,2)
Erabiltzaile berrien kopurua	994 (-% 9,3)	1.800 (+% 76,6)	2.983 (+ % 70)	2.420 (-% 18,8)	1.512 (-% 37,6)

Gehien bisitatzen diren hamar orrialdeen artean, hasierako orrialdeak eta eduki zehatzek gora egin dute gehien bisitatzen den orrialdearen aldean (Zer esan nahi du?), hau da, atarian

errepikatzen diren terminoen glosarioarekiko. Horren arrazoia izan daiteke erabiltzaileak gehiagotan errepikatzen direla.

Eduki-orriak	Bisita-kopurua
Zer esan nahi du?	2.792
Hasierako orria	984
Udal aurrekontuak, guztira	882
Gasteizko Udalaren aurrekontuak	446
Ordainketa eta inbertsioak	409
Aurrekontuaren ikuspegi orokorra	338
Aurrekontuak modu grafiko eta argian	395
Zure ekarpena	239
Kultura	220
Aurrekontua: Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena-Aurrekontua	114

Ondorioak

2024an, gardentasun-ebaluazioa egiteko 63 adierazle identifikatu dira, hau da, % 21eko igoera aurreko urteekin alderatuta.

Gehikuntza hori gertatu da batez ere kontratazioari, udal-langileei eta udal-zerbitzuei buruzko gai orokorreari buruzko edukiak berrikusi direlako.

Hurrengo grafikoaren bidez egiazta daitekeenez, identifikatutako adierazleen % 82,5ek txosten honetan aipatutako legeek eskatutako betebeharrak betetzen dituzte, baina % 6,3k hobetu egin behar dute, eta betetzen ez dituzten adierazleen % 11 geratuko litzateke lantzeko.

LEGE-BETEBEHARREN BETETZE-MAILA

	Guztira	Bai		Ez
			Hobetu behar dute	
Erakundeari eta antolakuntzari buruzko informazioa	15	13	2	0
Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa	7	0	4	3
Informazio ekonomikoa, aurrekontuen ingurukoa eta estatistikoa	20	18	0	2
Langileei buruzko informazioa	5	4	1	0
Politika publikoei buruzko informazioa	5	0	2	2
Beste zenbait alderdi	8	8	0	0
GUZTIRA	60	40	5	7
%	100	82,5	6,3	11

Aurreko urteekin alderatuta, ezin da esan betetzen ez diren adierazleei dagokien informazioan aldaketa esanguratsurik dagoenik: ondasunen inbentarioa, zerbitzuen kostu eguneratuaren azterketa edo zuzendaritza-postuei eskatzen zaien profila ezartzea.

Gobernu irekiko politikekin lotuta eguneratu den informazioari eta egin diren hobekuntzei dagokienez, 2024ko ekainean NEXT generation funtsen bidezko finantzaketari esker, egoitza elektronikoa erakargarriagoa eta joerekin bat datorrena jarri ahal izan da abian, irisgarritasuna bermatuz eta erabiltzailearen erabilgarritasuna eta esperientzia hobetuz. Egoitza elektronikoa berriaren hobekuntzen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Hizkera eta terminologia sinplifikatzea, orrialdeen izenburuetatik hasi eta menu eta esteketaraino.
- "Ogi-apurrak" sartzeta, mapa edo ibilbide moduko bat, erabiltzaileei errazago kokatzen eta mugitzen laguntzen diena.

- Nabigazioa hobetzea, informazioa errazago bilatzeko.
- Izapideak egiteko moduari buruzko informazio zehatza.
- Estekak, ikonoak eta erlaintzak intuitiboak dira, eta ahalegin txikia egin behar da funtzio-namendua ulertzeko.

Bestalde, azpimarratu behar da garrantzi handia eman zaiola plataforma berriko informazioaren arkitekturari; horretarako, nabigazio-datuak eta sektore publikoko araudiak ezarritako legezko betebeharrak hartu dira kontuan.

Egoitza berriaren beste abantaila bat zerbitzu erabilienak biltzen diren eremu pertsonalerako zuzeneko sarbidea da. 2025ean, hobekuntza horiek egungo webguneko beste atal batzuetara hedatu daitezkeen lan egingo da.

Gobernu irekiaren politiken beste ildo estrategiko bat da datuen irekiera, Datuaren Bulegoaren proiektuaren aurrerapena, zeinean Udala murgilduta baitago: gardentasuna zeharkako bihurtzeko prozesu osoari bultzada bat ematen saiatuko da. Hala ere, herritarren beharrak, erakundearen barruan beharrezkoa den sentsibilizazioa, prozeduren garapena, prozesuen automatizazioa, prestakuntza eta abar kontuan hartuta planifikatu beharko litzateke, bai eta gardentasuna eta parte-hartzea erraztuko duten digitalizazio administratiboko jarduerak kontuan hartuta ere.

Hori da jakinarazi beharreko guztia, Vitoria-Gasteizen, 2025eko apirilaren 11n.

Gadentasunaren eta Edukien Atala

Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzua